



*Udalak aurrekontu-
egonkortasunarekin
itxi du 2014. urtea*

/3. orrialdea

*Meatze-
barrutietako
Paisaiaren
Ekintza Plana*

/2. orrialdea

*Udalerriko
erdiguneko 3
aparkaleku
berritu dira*

/4. orrialdea

*Itsaslur
pasealekuko
lurrei buruzko
akordioa*

/5. orrialdea

*Muskizko
eskubaloi-
klubeko seniorrak
Zilarrezko Ligara*

/6. orrialdea

Editoriala

Renovando ilusiones

Irisgarritasuna, kirola, pertsonen arreta, kultura, prestakuntza, enplegua, jolaserako guneak, natur ibilbideak, auzoak... gure konpromisoa izan dira eta izaten jarraituko dute, Muskiz handitzen jarraitzeko.

Udalean lau urte lanean eta konpromiso handiz igaro ostean, beste erronka bati aurre egingo diogu, lehenengo eguneko ilusio berberaz.

Maiatzaren 24an, udal hauteskundeak izan ziren, eta 4.226 boto zenbatu ziren, honako emaitzekin:

	Zinegotziak	Botoak	Ehunekoak
EAJ-PNV	6	1859	%45,02
EH BILDU	3	847	%20,51
PSE	2	708	%17,15
MBAI	2	561	%13,59
BESTEAK	-	251	%3,73

Hauteskundearen ajea igaro ondoren, harremanak hasi ziren talde politikoen artean, ekainaren 13an udalbatza eratzeko helburuz.

Alkatea izendatu ostean, EAJ-PNVko eta PSEko 8 zinegotziek gobernu-talde berria osatuko dute hitzarmen egonkor, gizarteratzaile eta zeharkako batekin, zeinetan Muskizko pertsona gehienak ordezkatuta sentitu ahal izango diren. Hitzarmen hau era guztietako pertsonen arteko elkarrizketan eta konfiantzan oinarritzen da, eta eskualdean liderra izango den udalerrri baten aldeko apustua egiten jarraituko du. Zintzotasuna, esfortzua eta gardentasuna izango dira gure identitate-ikurrak, eta konpromisoa hartzen dugu erabakiak legez araututako prozeduren bitartez hartuko direla.

Parte-hartzea, gardentasuna, pertsonen konpromisoa, enplegurako politika aktiboak, ingurumenaren kontrola eta zorroztasuna, hezkuntza, prestakuntza, kirola, musika, gazteentzako aisialdirako aukerak, auzoak... horiek dira helburu gisa zehaztu ditugun oinarritzeko lan-ildoak, Muskizko eskualdeko udalerrri liderra izaten jarrai dezan.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Meatze-barrutietako Paisaien Ekintza Plana

2015ean, Paisaiaren Ekintza Plan bat prestatu du Udalak, udalerriko meatze-barrutietan etorkizunean egingo diren esku-hartzeak zehazteko; izan ere, barruti horiek oso paisaia berezia osatzen dute, eta errespetatu egin behar dira. Ekintza Plan horretan bilduko dira balioan jartzeko azterketak, paisajismo-ekintzak, seinaleztapen eta urbanizatzeko, eta erabilerari berriak egiteko proposamenak.

Paisaiaren Ekintza Plana beste ekintza batzuen jarraipena da; hain zuzen ere, 2014an meatze-barrutien ikerketa historiko-arkeologiko bat egin zen, eta, horren bitartez, HAPOn (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) barruan txertatu nahi dira turistentzat interesgarriak izan dai-

tezkeen guneak. Gainera, ekintza honen barruan zehazten da zer mailako babes eman behar zaion udalerriko meatzari-tza-instalazio bakoitzari, balio arkeologikoaren arabera.

30.000 euro inguruko aurrekontuarekin, Udalak ekintza plana osatzeko dirulaguntza lortu du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eskutik: 24.300 euro inguru. Hauek dira planaren helburu nagusietako batzuk: Muskizko meatze-ondare anitzaren berri ematea, ondare hori hobetuz kulturaren ikuspegitik, eta ibilbideak berreskuratzeko plan bat diseinatzea, Kantabriara doan errepi-dearen eta kostaldearen artean zabaltzen den landa-gune zabala errespetatuta.

Txakurren jabeek kontzientzia hartzeko kartelak

Herriko lorategiak modu egokian erabiltzeko eta hezkuntza zibikoa bultzatzeko asmoz, Udalak informazio-kanpaina bat jarri du abian, txakurrak dituzten pertsonen kaleak eta hiriko gune berdeak garbi mantentzeko. Hain zuzen, kartelak ipini dira animaliak eta Muskizko biztanleak ibiltzen diren 16 gunetan, bereziki hau-reen jolas-lekuetan.





Udalak aurrekontu-egonkortasunarekin itxi du 2014ko ekitaldia: 1.602.000 €

Udaleko zerbitzu teknikoen txostenak erakusten du aurreko gobernua aurrekontu-egonkortasunarekin amaitu duela 2014ko ekitaldia: 1.602.000 euro. Udalaldeak egindako ahaleginaren fruitua da hori; izan ere, inbertsio asko egin diren arren, talde horrek lortu du likidazioa indize handiarekin eta oreka-egoera positiboarekin ixtea.

Ez hori bakarrik, izan ere, teknikarien egonkortasun-txostenak beste datu positibo baten berri ere eman du. Hain zuzen ere, Udalaren diru-kutxen kaudimena %19 hazi da; hortaz, 2014ko ekitaldia amaitzean, Udalaren funtsetan

16.977.000 euro zeuden. Horrek erakusten du bizi-kalitatea hobetzeko inbertsioak eta aurrekontu-egonkortasuna bateragarriak direla, baldin eta baliabideak modu eraginkorrean kudeatzen badira.

2012an, gobernu-taldeak finantza-plan bat onartu zuen, diru-kutxen egoera saneatzeko. Une hartan, egonkortasun-txostenek aurrekontu desorekatuak erakusten zituzten: -985.000 euro. Bi urte geroago, eta hainbat inbertsio egin diren arren (besteak beste, enplegu-planak martxan jartzeko eta irisgarritasuna eta zerbitzuak hobetzeko eta handiagotzeko), 2014ko ekitaldia zerbaki positiboekin amaitu da: 1.602.000 euro.



Bost LED pantaila eta hiru Wifi gune ipini dira

Udalak bost informazio-panel ipini ditu, LED motakoak, biztanleei interes orokorreko informazioa helarazteko eta biztanleek udalerriko bizitzan parte har dezaten sustatzeko. Ekimenaren aurrekontua 185.000 euro ingurukoa da, eta, horren barruan, kontuan hartu da 21 kamera finko eta mugikor ezartzeko aukera, udaltzainen kontrolerik kanpo geratzen diren trafiko handiko guneetan eta telebista zirkuitu itxiak ez dauzkaten eraikin publikoetan. Sare horren bidez, hiru WIFI gune publiko ezarriko dira: Meatzari plazan, Errotzahar parkean eta San Joango zelaian.

Herritarrek Udaltzainen Zerbitzu Gutunean parte hartzeko kanpaina

Udaltzainen Zerbitzu Gutuna prestatzen ari da Udala, eta, herritarrek udal-instituzioetara hurbiltzeko politikaren barruan, kanpaina bat ipini du abian, muskiztarrek dokumentuaren osaketan parte har dezaten.

Horretarako, Muskizko biztanleek triptiko bat jaso dute beren etxeetan, Zerbitzu Gutunaren helburuen berri izateko, eta

beren iritzi eta iradokizunak helarazi ahal izateko txartel bat ere jaso dute. Hori bete ondoren udal-bulegoetara eraman beharko dute, edo, bestela, herriko beste zenbait tokitan ezarritako karpetera: merkatuan, kiroldegian, mediku-kontsultegian, Las Acaciasen edo Pobeñako auzoan. Era berean, Udalaren webgunean site bat jarri da abian, ekimen horretan parte hartu ahal izateko.





Euste-horma bat Castañosko bidean

11.000 euroko aurrekontuarekin, Udala euste-horma bat eraikitzen ari da Castaños auzora iristeko errepidean, eta baranda bat jarri du ibiltariak ez daitezen gune horretan dagoen errekarara erori. Neurri horren helburua da luizi-arriskua gutxitzea eta segurtasuna areagotzea.



Gimnasioko erabilera askeko makina guztiak ordezkatu dira

Udal kiroldegiko bazkideek dagoeneko erabil ditzakete gimnasioko erabilera askeko makina berriak. Udalak 10.000 euroko inbertsioa egin du ekipamendua berritzeko; gune horretan, batez ere, aerobic-ekintzak egiten dira, eta bazkide guztiak dohainik sar daitezke. Erabiltzaileen eskariei

erantzuteko, 5 bizikleta estatiko, 2 eliptiko eta 2 arraun-ergometro berri ezarri dira areto horretan, monitore batek ikuskatu gabe kirola egiten baitaiteke. Erabiltzaileek ekipamendua aldatzea nahi zuten, hondatuta baitzegoen erabileraren eta denboraren poderioz.



Etxe bat eraitsiko da, hondatzeko zorian dagoelako

Udalak Geltoki kaleko 8. zenbakian dagoen etxea eraitsiko du, hondatzeko zorian baitago eta arriskutsua izan baitaiteke herritarrentzat. Eraikina eraisteko kostuak etxebizitzaren jabeak ordainduko ditu; izan ere, bere betebeharra da eraikina gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzetan mantentzea.



Muskizko erdiguneko hiru aparkaleku berri dira, eta berriro asfaltatu dira

Maiatzean zehar, Udalak erdiguneko hiru aparkalekutako espaloi eta seinale horizontalak berri ditu, kiroldegia eta Kultur Etxearen inguruan; izan ere, nahiko hondatuta zeuden, denboraren igaroagatik eta jende askok erabiltzen dituelako, hala herritarrek nola bisitariek. Era berean, Santelicestik Borja auzora joateko errepideko asfaltoa berritzeko lanak amaitu dira. Horri esker, kilometro

bateko luzeran trafikoa zailtzen zuten bideko zulo guztiak berdindu dira.

31.000 euroko inbertsioa eginda, kiroldegiko aparkaleku txikian eta Kultur Etxearen atzeko aparkalekuan asfaltoa berri da, eta aparkalekuko marrak berriro margotu dira. Correosko bulegoaren aurrealdeko aparkalekuan, ordea, seinale horizontalak hobetu dira.



Udalak eta McLennanek akordioa sinatu dute, Itsaslurreko lur pribatuei buruz

Meatze-enpresak eta Udalak akordioa sinatu dute, Itsaslur parkearen sarreran dauden aparkaleku eta aisialdi-guneak erosteko, Kobaron auzoan. Akordio horren bitartez, eremu horren bueltan urte luzez iraun duten auziak itxi dira. Muskizko udal-taldeak, 1998an, egokitze-lanak egin zituen 12.500 metroko lursailean, lur horiek publikotzat hartuta.

Adostutako akordioan beste bide bat ere onartu da, hain justu, eremua eta El hoyo auzoa lotzen dituen, bai eta gaur egun

aparkaleku modura erabiltzen den sarbide bat ere, oso hondatuta dagoena. Bi kasuetan, udal-taldeak baimena eman dio enpresari, eremu horiek Itsaslurreko Pasealekuaren proiektuko lurren barruan txertatzeko.

Gainera, epai judizial batek Udala behartzen zuen lurrak lehen zeuden moduan uztera, alegia, 90eko hamarkadaren amaieran egokitze-lanak egin aurretik zeuden moduan uztera; alabaina, akordioaren bidez -147.000 euroko prezioarekin itxi da-, McLennan meatze-enpresak uko egin dio eskubide horri.



Bi haur-gune berri dira

Kalea jolas-leku gisa berreskuratzeko politikaren barruan, Udalak kautxuzko zoru jarraitua ipini du, eta egurrezko jolasak zaharberritu ditu Gibako haur-parkean (Lutxo gisa ezaguna) eta ikurrinaren parkean. Bi esku-hartze horiek egiteko aurrekontu osoa 17.500 eurokoa da.



Udalak 38.000 hondakin-kilo kendu ditu kontrolik gabeko zabortegietatik

Udalak gaitzetsi egiten du zenbait pertsonaren jarrera ez-zibikoak alferrikako gastuak sortzea udalaren diru-kutxei. Altzariak, matrazeak, hondakinak, bidoiak, zaborra, janaria, gorpila, arropa... mota horretako hondakinak aurkitu dira Muskizko kontrolik gabeko lau zabortegitan. Hori dela eta, hondakinak kentzeko ibilgailu egokiek esku hartu behar izan dute, eta, horrez gain, baimendun kudeatzaileen instalazioetan utzi behar izan dira, 9.000 eurotik gorako ohiz kanpoko inbertsioa eginaz.



Lanak Cantarranan eta Muskizko BHI

Jolas-lekuko zelaiak margotu dira, Cantarrana eskolako sarrera nagusiaren lorategia berriro atondu da, eta Muskizko BHIra sartzeko errepideko seinaleak hobetu dira. Joan den legegintzaldian, 300.000 eurotik gorako inbertsioa egin zen bi eskoletan.



Elkarrizketa



Muskizko Eskubaloia Kluba: senior-taldeko neskak zilarrezkoak dira

“Seniorren igoera bizi-bizia izan da, herri guztiak gogoz babestu gaitu-eta

Muskizko Eskubaloia Kluba 1968an sortu zen, José Antonio de la Peña gaur eguneko presidentea sustatuta, eta 230etik gora kirolarik hartzen dute parte bertan, hala eskoletan nola federazio-mailan. Azken gailurra senior nesken igoera izan da, Estatuko Ligako bigarren mailara igo baitira. Muskizen bertan sailkatu ziren Zilarrezko Ligan jokatzeko. Hala ere, garaipen hau beste garaipen bat gehiago baino ez da; izan ere, hala mutilen taldea nola neskena Ligako eta Kopako txapeldun izanak dira.

G/ Nesken senior taldea Zilarrezko Mailara igo da. Nola bizi izan duzue hori taldean? Zer eragin izango du hurrengo denboraldian?
E/ Oso modu bizian bizi izan dugu, hain zuzen ere, igoera-fasea Muskizen bertan jokatu zelako, eta herritarrek gogotik babestu


zuten taldea, izan ere, kiroldegia leporaino bete zuten lehiaketako hiru egunetan: 600 pertsonatik gora egon ziren. Igoera hau inflexio-puntua da, eta etekina atera behar diogu, eskubaloia-jokalaria eta babesle gehiago erakartzeko.

G/ Alde onik badu, bistan da, baina alde txarrik ere ba al dauka?
E/ Igoera hau dela-eta klubak behar duen aurrekontua hirukoiztu egingo da. Udalaren eta Petronorren laguntza daukagu, baina diru gehiago lortzea zaila izango zaigu.

G/ Emakumeen kirolaren urrezko aroa al da hau?
E/ Muskizko Eskubaloia Klubean emakumeak dira nagusi, nabarmen: 3 emakume, gizon bakarra dago. Baina, oraindik ere, emakumeen kirola ahaztu egiten da. Pena

handia da emakumeen parte-hartze erraldoi honek eta azkenaldian lortu dituzten arrakastek tamainako erantzunik ez jasotzea. Gauzak horrela, kostuak ordaintzeko aukerarik ez duten taldeek goi-mailetan eta Europa mailan lehiatzeari uko egin behar izaten diote.

G/ Talde umila da zuena. Nola ikusten duzu etorkizuna kirolaren eta ekonomia-erakundearen ikuspuntutik? Babesle finkoak dituzue?
E/ 200 kirolaririk gora dauzkagun arren eta herritarren babes handia daukagun arren, beste elkarte batzuek adina edo gehiago, babesleen ekarpenak askoz txikiagoak dira. Zorte ona dugu, klub osoa engaiatuta dagoelako eta harrobi sendoa daukagulako, urtez urte handitzen doa. Horri esker, etorkizunari baikor begiratzen diogu.



Informazio-liburuxkak, Muskiz utzi gabe kirola egiteko

Enkarterrialderekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin elkarlanean, Udalak informazio-liburuxkak prestatu eta banatu ditu. Bertan, 6 ibilbideren berri ematen da, Muskizko toki garrantzitsuetan barrena doazenak, alegia, balio historikoa, monumentuak edota paisaia ederra dituzten tokietan barrena. Ekimen hau adin eta egoera fisiko guztietako herritar eta bisitariari zuzenduta dago, eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzen ditu. Horrela, ibiltzea ez da soilik kirola egitea, ezpada bestelako balio batzuek gozatzea ere.

